

ERTIA GAURKOZ

**«UR» TALDEKO GRAZENA J.-REN
ERAKUSKETA BIKAINA**

Donosti'ko Udalaren Erakustokietan, Bulebar aldeko azprietan, «Ur» taldeko Grazena J.-ek erakusketa oso ikusgarria eskeini digu egun auetan. Grazenea'k ba daki bere lanean moldatzen. Gpre erriaren kondairan orregatik artu du bere leku jakinekua. Ibilili ere, or zear ibilia da Espainia barruan eta Europa'ko lurretan. Asiera 1949'garren urtean izan zuan, gipuzkoar pintore gazteen artean sarritua izan zanean.


Grazenea'k besteak ez bezelako ikuspegia du, aurrean daukana ikusteko. Teknika ta lan-joera oso berea sortu zaio, emendik kanpora ikusi dituan ertlari ta errien lan-motak ikusi ondoren. Orregatik onelako nortasuna iritxi du bere eieian.

Bere gairik nagusia, mendia ta itxas-ertza ditu. Ori baita gure Euskalerrri ontako gairik ugariena. Onela eskeintzen digu bere lana, zertu gabeko aide apur bat bere eratan txertatuz. Koloretan ere alako xumetasun bat somatzen degu bere kuadrotan. Geinenetan argia da bere margozketa. Ba du ala ere bere nabardura argi-lluinetan. Ikustekoak dira bere urdiñak eta lurrak. Guzi au oso bakundua ematen digu ta berez aterako baliatzaio bezela.

Akuarela ta bodegoietan bere marrezkiaren maixutasuna erakusten digu. Gure lurra bere begiz ikusten du; ortik datorkio iritxi duan nortasun aundia. Arkitu duan bidea, bere-bere baitu. Ori nabarmentzen da bere azkenengo marrezkietan.

Gure ondartzetako azterketak ere berebiziko xelel-sun maitekorra sortu dio. Onela jaso du gure ondar arteko argiaren jolasa eta itxasoaren bere-aldietan ondarrak eskeintzen digun ikuspegia, bere potzu ta ur-txurka-urdiñekin eta itxas zabalaren eremu bustia, ontzi'ko bakan batzen nabarretan galdia.

Grazenea, noski, euskal-pintura barruan norbait ba



Grazenea, bere ertl-lan baten aurrean.

da. Or agiri baitu bere gaitasuna, lanerako zintzotasuna, dardara ta lan-maixutasuna.

Bere ertl-eskua mamitzeko zorrian delarik, eroso etorri zaigu gure egunotako giro ta lan-bideen arian bere margozkera yayoaren erakusketa onekin.

Pintorea dala erakutsi du; gaurko giroa ta lan-bideak ezaqutzen dituala agiri dago. Bere baruko sentipen eta ikuspegi sakona azalera atera du. Benetan ikustekoak da eskeini digun bere lan ugariaren erakusketa au.

OAR SORTA

31. JAN EDANAK

Izenburu onegaz agertzen da A. A.-k izenpetuta atal irakurgarri bat "Egan" aldizkarian. Zerbake danetan idazten dau idazle ezagun onek.

"Egan"-on azkenengo zenbakitari egin neutzan oarrean naspillatxo bat agertu dalako ipintzen dot au beste oarito au A. A. da "Jan Edanak" atalaren egilea.

Sarritu entzun doguz, irakurle asko dauko atal onek. Izan be gai egokia da euskaldunontzako, eta luma onaren jabea A. A. idazlea.

32. ERTLARI-PINTORE ETA EUSKAL-OLERKARI

Ezaguna dogu Grazenea-Joxe irundar ertlari-pintorea. "Ur" izeneko taldekoa da. Europatik ziari ibilia joan diran urteetan.

Euskalduna da bera, Irungo Katia auzunako semea. Erderaz emon ebazun olerki batzuk "El Bidasoa" astekarian.

Tolostasun barik, eta biotzez ertlari dan baten argitasun bizi-bizian esaten ebazan bere barrukoak.

Euskeraz asi da orain. Irungo euskera jatorrian.

Ertlari-pintore ona izatera eldu baijaku, euskal-olerkari oheago jatorku Grazenea. Zorionez, Euskal Olerkiarentzako.

33. ARIZTIMUÑO (XIX-Gizaldikoa)

Joan dan gizaldiaren erdi-ingurukoa dogu Ariztimuño euskal idazle au. 1852'garren urtean izenpetuten dau beze euskerzako sermoe bat.

Frändien bat ote-geiñuen Ariztimuño au? Frantziskotarra bear bada?

Neure adiskide on baten euskal liburutegian ikusi dot Ariztimuñoek euskuz egiñiko sermoe idatzi au.

Euskal idazleen iztegi osoa egiten denerako, emen daukagu gaur arte ezaqutua ez dan euskal idazle baten izena.

34. AGUSTIN DE JAUREGUI

Albiste on bat urtero berritzen dana liburuaren egilea. Jauregiren idaztandekoa ikusita, Aita Linoren iritziari izan leitekez onen gipuzkoar idazle onenak "Herejien", "Terescharen", "Bi garbaraz", "Josché Mignelen garbara" (ikusit Oar-Sorta, 26) eta Baionan agertu ziran beste liburuxo batzuk be bai. Ikusi Aita Akesoloren "Erle gobernatzaileen gudiari", Boletin de los Amigos del País aldizkarian: 1904 urteko 369'garren zenbakian.

Ez dira zertan bihurtu emone euskalkietara liburuuxok, gipuzkeraz dagozan ezkerre. Biurtze bierra eginga dogo, eta argitaratze-ko prest-prest, argitaratzaillan zai.

ARRIURDIN

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERI

MAI-ONA



SAGARDUA

QUEBEC' EKO

«Vive le Quebec libre», esan zuten De Gaulle'k. Esta orduan jakin du askok Kanada'n bi etnia daudela:

Kanada'ko erresuma' osoan 19.604.000 lagun Quebec'en 5.624.000 lagun.

Kanada'ko laurden bat, hitz batez, frantsesez mintzo da; eta hiru laurden gutxi gorabehera, ingelesez. Hau larritz neurtua: Quebec' etik kanpora ere frantsesez mintzo diran herrialdeak ba dira-ta. Gutxienez, beraz, lau kanada'tarretatik batek frantsesez hitz egiten du. Ez da txit gutxi.

Quebec'eko hizkuntza, bestalde, irakurleak ongi dakienez, ez dago soilik munduan: Quebec'en idazten dan hizkera, eta Frantzia'n edo Belgika'n idazten diranak, hizkuntza berbera dira (Holanda'n eta Flandre'tan idazten diranak berberak diran bezelaxe). Hizkuntza-bakardaderik ez, beraz, quebec-tarrentzako. Quebec'eko kasoak ez du Israel'goa gogoratzen, ezta Finlandia'rena ere. Quebec'tarrek ez dute sekulan izan teknika-arazorik: hizkuntza egiña zegoen betidanik, eta Frantzia'ra begiratu besterik ez zuten behar tresna zorrotz bat guztiz gertu aurkitzeko.

LITERATURA-PIZKUNDEAZ

Legen aldetik, berriz, eskubide haundiak dituzte gaur Quebec'ekoek. Hizkuntzaren aldetik zapalduak eta baserriarren arteko apaizen eskuetan ahaztuak izan zirala izkutatzerik ez dagoen bezela, gaur ia ia paretasuna lortua dute legetan; eta ez dago, nabarmen behintzat, bigarren mailako hizkuntzarik. Quebec'en frantsesa, Flandre'tan flamenkera bezela, lege-hizkuntza bihurtu da; eta eskolan, administrazioan, telebistan, eta abar, arras da nagusi; Bordele'n edo Lieja'n bezelaxe.

Quebec'tar abertzaleek askatasun osoa nahi dute bere netnientzat; eta, jomuga horri buruz, denek, ezkertar eta eskuindar, bat egin dute. «Quebec frantsesum» helburuak bertako guziak bildu ditu.

Hizkuntzaren pizkundea, halere, lehen-lehen mailakoa da. Urrunsko gaude euskaldunok. Huna hemen igazko literatura-sarien lerrokada:

- Molson saria 15.000 dolar
- Kanada'ko Goberna-riaren Saria 2.500 »
- David-Saria 5.000 »
- Montreal-Saria 3.000 »

- «Etudes Françaises»-Saria 2.000 »
- Livre de France-Saria 1.000 »
- Jean Béraud-Saria ... 1.000 »
- Maurier-Saria 1.000 »
- Champlain-Saria 500 »
- Duvernay-Saria 500 »
- France-Canada-Saria ... 220 »
- France-Quebec-Saria ... 440 »
- Marie Lemelin-Saria ... 1.100 »
- Quebec'eko Literatura-Txapelketak: Asmamen-lan 2.500 »
- Olerki 2.500 »
- Gaztaro-Sorta 2.500 »
- Jakintza-Liburu 2.500 »
- Kondaira 2.500 »
- Giza-Jakintza 2.500 »
- Filosofia 2.500 »


Guizira 50.760 dolar urtean

Urtean, beraz, Quebec'tarrek peseta 3.500.000 erabiltzen dituzte, hogeitari diferentetan, frantsesezko literatura-pizkundea bultzatzeko!

Ba dago hortan zer pentsaturik, nik uste. Euskeraren egoera ez baita errazagoa ez alde batetik eta ez bestetik Quebec'eko frantserarena baino...

LARRESORO

Amuebladora COMERCIAL HISPANIA



“EGUNDOKO TRESILLO ESKEINTZA”

TRESILLOS, SOFAS-OEAK

2.100 pezeta! k asi-ti 32.000 pezeta'rañokoa^k, aukeratzeko 800 erduen artean

PROBINTZI GUZTIRAKO MERKATZE PARTIKULARRAK: FRAMATEAK UTSEAN ETA, BI PERTSONENTZAT, JOAN-ETORRIA GURE GAIN. EPEKA EROSI ITZAZU, PREZIOA GARESTITU GABE.

MORAZA, 3 ETA 14 - DONOSTIA

SAN MARCIAL, 12 - IRUN